

GEHIGARRIA KILIBARREN · KULTURA ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XVII. FOLKLORE JAIALDIA  
KIROLA ARKAITZ MUJKA TXIRRINDULARIAK JESUS LOROÑO MEMORIALA IRABAZI DU


# BARREN

ASTEKARIA

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A · 2003ko uztailearen 11/XI. urtea/453. zkia

XV. EUSKADIKO ARKU TIRAKETA TXAPELKETA, MINTXETAN

## *Robin Hood modernoak*





# SANTANA JAIXAK 03



**Uztailaren  
24tik 27ra**



*Ondo pasa  
jaixak!*





# 40 URTE 40 ISTORIO



1963



1992

25

## 1992. Elkartearen bigarren etapa

Aurreko astean esan genizuen 1990ean Elgoibarko Izarra desagertzeaz egon zela. Baina, zorionez, bi-hiru bazkidek Elkartea bizirik mantendu behar zela erabaki zuten. Oraindik zeregin asko zegoela egiteko gure herrian euskararen alde.

Baina Elkartea bizirik mantentzekotan, lan dinamika berria pentsatu behar genuen, beste dimentsio bat eman. Izan ere, zegoeneta mantentzeak ez zuten inolako zentzurik.

Hau onartuta hasi ginen 1991n Elkartearen bigarren etapa diseinatzen eta antolatzen. Baina suertea izan genuen, ez genuen ezer asmatu beharrik izan. 1985 inguruan, Arrasate Euskaldun Dezagun elkarte sortu zen Arrasaten eta bere arrastoan sartzera erabaki genuen guk ere. Bidea zabalik genuen, euskalgintzan jarduteko ideia berriak ikusi eta ikasi genituen. Beraz, Arrasatera begira jarri eta Elgoibarko Izan'ari kolore eta forma berriak emateari ekin genion. Bagenekien kopia hutsarekin ezingo genuela aurrera egin, baina asmatuta zegoena asmatzen hasteak ere ez zigun batere graziaz egin. Sasoi honetan beste hamaika euskara elkarte sortuko dira Euskal Herriko beste hainbeste herritan.

Eta zertan bereizten ziren Elgoibarko Izarra zaharra eta berria? Elkartearen helburuak eta arrazoiak berdina baziren ere, lana egiteko era edo modua izan zen batez ere aldatu zena. Eta aldaketarik garrantzitsuena, akaso, profesionalen presentzia izan zen. 30 urte inguruan lan militante hutsean jardun ostean, Elgoibarko Izarrak langile profesionalak ere behar zituela erabaki zuen. Datorren astean berba egingo dugu profesionalen gainean.

*Imanol Larrañaga*

# iritzia



## Dira, dira, zezenak dira

Estafeta kalean gora korrika nindoan, zezena atzetik segika nuen eta haren adar zorrotza nire ipurmasailean sartzera zihoala esnatu naiz, izerditan blai. Ez naiz gehiago entzierroa ikustera jaikiko. Dena den, badakit zergatik izan dudan amets hori. Ez dauka San Ferminekin zerikusirik. Txoko honetan idazteko txanda iritsi zait asteon, eta zeri buruz idatziko nuen erabakitzen ari nintzela azkenean zezenak harrapatuko ninduela pentsatu nuen: berriak zahar bilakatzen dira segituan.

Otsailean gertatu zitzaidan. Iraken kontrako eraso hasi baino lehen, petrolioaren izenean hil behar zituzten herritarrei buruz idatzi nuen atal honetan argitaratzekoa zen iritzia. Baina aldizkaria inprentara bidaltzeko ordu gutxi falta zirenean Egunkaria itxi zuten. Orduan denbora izan nuen iritzi hura paperontzira bota eta berria idazteko. Lehenago ere gertatu zitzaidan halakorik. New Yorkeko Dorre Bikiak bota zituztenean ere testua aldatu behar izan nuen azken orduan. Baina batzuetan ez da egoten aldaketarik egiteko astirik. Astearen erdian idatzitakoa asteburuan argitaratuko da, eta kito.

Gara egunkaria? Tourrean euskara errespetatzeko ituna? Lee Chun-en etorrera? Egun batetik bestera zeresan ugari sor ditzaketen gaiak dira. Edo baliteke haien inguruan ezer berririk ez gertatzea. Dena den, entzierroaren hariari helduz, zezenen aurrean jarriko nitzuke komunikabideak ixten dituzten epaileak eta haien atzean daudenak, herri batean bertako hizkuntza errespetatzen ez dutenak, eta baita futbol kontuak hil ala bizikotzat hartzen dituztenak ere. Sar daitezela zezen-plazan eta atera daitezela kalabazan.

Montse Arregi

Kexak .....

MOtZ MotZ ..... 8

gehigarria .....

kiRoLak ..... 21

aGenda .....

## IRITSI DIRA OPORRAK BARREALera

Urtero bezala, garai honetan, oporrak hartuko ditugu BARRENen. Abuztuaren 22an, SAN BARTOLOME JAIETAKO ZENBAKI BEREZIA eskuartean izango duzue. Iraileko lehenengo alea, berriz, hilaren 5ekoa, jaiei eskainiko diegu. San Bartolomeetan ateratako erretratuekin eta bitxikeriekin kaleratutako ale berezia izango da. Ondo pasa oporrak lantaldearen partez.

# ASTEKARIA BaRRen

Nafarroa enparantza..=  
20870 ELGOIBAR  
4 943 74 41 12  
Publizitatea  
T 943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04  
E-posta:  
[banen@topagunea.com](mailto:banen@topagunea.com)  
Helbide informatikoa:  
[www.topagunea.com/Vberren](http://www.topagunea.com/Vberren)

LAcutrmutEx Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA UXUe Alberdi PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Eduarne Bilbao, Golzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Monise Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

### Eld ELGOIBARKOJARRA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurtaritzako Kultura Sailuk Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



**DANOBAT**  
MAGUIÑAR HERROMENTA



**SS GOITI**  
GRUPO DANOBAT



**44FrAPTA**

kutxa  
zun esker

# Urruzunoren begi ezkutua

## Neskatilaren malkoak



Ile beltzarako neskatila leihotik begira dago. Begirada urrunean galdua, aitarekin akordatzen da. Berarekin egon nahiko luke, baina ezin du. Preso eramán zuten botereko ultranazionalista espainiarrek, euskaldunon egunkaria bidegabeki itxi zuten demokrata horiek, Udalbiltzaren kide izateagatik. Horregatik bakarrik. Euskal Herriaren alde jarduteagatik. Orduetik egun andana igaro da baina oraindik "aitatxo" ez da itzuli etxera. Neskatilaren begi tristeek bi malko isuritzen dituzte. Tarteka goibel jartzen da, hain denez handia sentitzen duen hutsunea. Malkoak masailetan behera doaz, aitarekin elkartzeko unea noiz helduko zain.

Iñigo Otaño



## ¡ riondoTABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 Tel: 943 74 00 15



**\*\*440t1P<sup>T</sup>W cr. coop.**

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR


- Gizonezko batek esan digunez, Sigma auzoan ez du inork debeku seinalea errespetatzen: "Auzoan debeku seinale bat dago, eta askotan, kotxe gidariek ez dute errespetatzen. Egun batean ume bat harrapatu zuten ia, eta horrela jarraitzen badute, egunen baten damutzeko moduko istripuren bat gertatuko da".

- Herritar batek esan digunez, Bernardo Ezenarro Kaleko Eroski inguruan, oso jende arraroa biltzen da larunbatetan: "Ingurune guztia zikinduta lagatzen dute, baina hori ez da txarrena: bertatik pasatzen den jendeari edozer gauza eskaintzen diete, eta aurre eginez gero, kontra egiten dute. Umeak bakarrik bidaltzea beldurra ematen digu. Udaltzaingora deitu dugu askotan, baina ez digute kasurik egiten. Tokatzen zaionak neurriak hartu beharko lituzkeela iruditzen zait".



## TZ1110111

- Jauzoro Plazako bizilagunek Udala txalotu nahi dute bertako lorategian lurra bota dutelako: "Oso ondo ipini dute Jauzoro Plazako lorategia, eta bertako bizilagunok Udalarri eskerrak eman nahi dizkiogu".



Urasandiko auzokide batek, ondorengo kexa ekarri digu Barren-eko erredakziora: "Urasandiko parkea erabat puskatuta dago. Txirristarak zuloa dauka eta tabla solte dago; umeentzako kolunpioa ere, apurtuta dago. Bestalde, jendeak ez ditu seinaleak errespetatzen, eta Herri Eskola aurreko errebueltan aparkatzen dituzte kotxea. Askotan ez da egoten igo edo jaisterakoan bi kotxe gurutzatzeko lekurik".



Barrak, Birrak eta Barreak







# Hood-ak



## Erronka bat

XV. Euskadiko Arku Tiraketa Txapelketa antolatzea erronka bat moduan hartu dute Zarta taldekoek. "Inoiz antolau izan ditzugu gauza txikixauak; Gipuzkoako Txapelketa duela bi urte adibidez, baina holakorik ez. Guk geuk ere ez zakagun arku tiraketan berri duela 4 urtera arte, atera kontuak". Aire libreko Txapelketa izango da Elgoibarkoa, neguan banuko txapelketa egiten baita. Negukoan 18 metroko distantzia finko batetik jaurtitzen dira geziak, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 100-120 parte hartzaile espero dituzte igande honetarako Mintxetan. Bi arku motetarako txapelketak izango dira. Batetik, arku olinpikoen txapelketa eta bestetik poleadun arkuentzako txapelketa. Distantziari dagokionez hiru izango dira aukeran; 30 metro, 50 metro eta 90 metro. Parte hartzaile elgoibartarrak hiru izango dira Ramon Blanco eta Itzargi Monasterio poleadun arkuekin eta Inaki Badiola arku olinpikoarekin.

**"100-120 arkularik hartuko dute parte domeka honetan, uztailaren 13an, Euskadiko Txapelketan"**

## Zenbait bitxikeria

90 eurogatik eskuratu daiteke hastapen arku bat, baina 1.800 euro balio dezakete onenek. Txapelketetan 90 metro da gezia bota daitekeen gehinezko distantzia, baina ehizarako poleadun arku batek 150 metrora jaurti dezake gezi bat. Gezi baten indarra neurtzeko, berriz, froga bat egin zuten. Plastikozko otar bat areaz bete ondoren, pistola batekin eta arku indartsu batekin tirokatu zuten. Bala hondarretan geratu zen eta geziaren muturra beste aldean atera zen. "Arku batek brometako gauza dirudi, baina indar handixa daka.

## ARKU OLINPIKOAK (RECURVE OLYMPIC BOWS)



Arku hauek hastapenekoak baino garestiagoak dira, 250 euro ingurutik gora kalitatean arabera. Benetako arku on bat oso garestia izan daiteke. Arku mota honek hastapen arkuak baino zehaztasun gehiago ematen du. Esan behar gorputza aluminiozkoa izaten dela orokorrean eta palak berriz egurrezkoak. Izenak esaten duen bezala, Joko Olinpikoetan erabiltzen dira.

## POLEADUN ARKUAK (COMPOUND BOWS)

1

1

Arku hauek zehaztasun gehien ematen dutenak dira, poleadun mekanismo batekin funtzionatzen dutelarik. Prezio aldetik olinpikoak baino garestixeagoak izaten dira. Normalean arku mota honekin ateratzen dira puntuazio altuenak.



## LONG Bow



Arku mota hauek, indioek edo Robin Hood berak erabiltzen zituzten arkuekin du antz handiena. Normalean lehiaketetan ez da halakorik erabiltzen, espresuki mota honetako arkuentzako lehia ez bada behintzat. Arku hauekin botatzean norberaren zuhurtzia da kontutan hartzen dena.



## 3 ume sahararrek eta 2 siberiarrek Elgoibarren pasatuko dituzte oporrak

Bi hilabete inguru egingo dituzte beraien herrialdetik kanpo

**B**este urte batzuetan egin duten moduan, aurtengoan ere Saharako umeak etorri dira Elgoibarrera. Guztira 3 neska-mutiko izango dira gure artean, eta bi hilabete inguru pasatuko dituzte bertan. Mohamed 9 urtekoa, Omar 6 urtekoa eta Jadiyahu 8 urteko neskatila dira Elgoibarrera iritsi berri diren sahararrak. Mohamed duela bi urte ere, izan zen Elgoibarren, eta aurtengoan ere, familia berak hartuko du etxean. Omar eta Jadiyahu ordea, lehenengo aldiz atera dira beraien etxetik kanpora. Beraien "udako gurasoek" esan digutenez, telebistak eta

urak asko harritu ditu: "Telebista ikusi zuenean adi-adi begiratzen zuen Omarrek, oso arraroa egin zitzaion", esan digute. Jadiyahu berriz, Mintxetako igerilekuan arropa eta guzti sartu zela kontatu digute. Saharako umeak hona ekartzeko tramite guztiak Frente Polisarioak Euskal Herrian duen ordezkartzaren bidez egiten dituzte. Ardura handia den arren, familiek ilusio handiz hartu dituzte umeak etxean.

Siberiarrak

Bestalde, herriko bi familiak Siberiatik ekarri dituzte bi neska-mutiko:

Zinaida Medveyena 7 urteko neskatila eta Vladislav Osipov 8 urteko mutikoa. Elorrioko Kainabehera Elkartearen bitartez ekarri dituzte bi ume hauek, eta esan digutenez, Euskal Herrira Siberiako 100 umetik gora etorri dira uda pasatzera. Ekainaren 25ean iritsi ziren, eta irailaren 4ra arte egongo dira Elgoibarren. "Siberian orfanatoan bizi ziren ume hauek oso baldintza txarrean, eta horrek bultzatu gaitu batez ere, haurra ekartzera". Esan digutenez, 700.000 ume inguru bizi dira Russian Orfanatoetan.



Omar



Jadiyahu



Mohamed



Zinaida (ezkerrekoa)



Vladislav ( ezkerrekoa)

## Asteburu gauetako autobus zerbitzuak ostiraletik hasiko dira udan

Foru Aldundiak uztailaren 4tik irailaren 26ra arte luzatuko du zerbitzua

**A**steburu gauetako autobus zerbitzuak, ostiraletik hasiko dira datorren irailaren 26ra arte. Opor garaia eta herrialde desberdinetako festetara joateko ohitura kontuan izanik hartu dute gauetako autobus zerbitzua ostiraletara luzatzeko erabakia. Autobusek bide berbera egingo dute ostiral eta larunbatetan. Orokorrean, gaueko 23:00ak aldera jarriko dira autobusak martxan, eta goizeko 5:00ak inguruan egingo dute azkeneko ibilbidea. Gazteek

kotxea gutxiago erabil dezaten eta istripuak gutxiagotzeko helburuarekin indartu du Foru Aldundiak zerbitzu hau, izan ere, 18 eta 25 urte bitarteko gazteek, asteburuetan Gipuzkoan gertatzen diren istripuen %35a baitira.

Garraio eta Errepide departamentuak 2001. urteko urrian jarri zuen martxan larunbat gauetako autobus zerbitzua, eta izan zuen harrera ona kontuan izanik, mantendu egin dute.

### ELGOIBAR - MUTRIKU

01:10      02:40      04:40      06:10

### MUTRIKU - ELGOIBAR

00:00      01:30      03:30      05:30

### ELGOIBAR - AZPEITIA

01:40      03:40      05:40

### AZPEITIA - ELGOIBAR

00:30      02:30      04:30



## Itziar Badiolak irabazi du Debegesak antolatutako II. Balkoi Apainketa Lehiaketa

Debegesak antolatutako Debabarreneko balkoiak apaintzeko II. lehiaketan Itziar Badiola izan da Elgoibarko irabazlea. Berak azaldu digun moduan, sorpresa bat izan da lehiaketa irabaztea: "ez nuen espero; izenik ere ez nuen eman lehiaketan parte hartzeko". Debegesak ekainaren hasieran antolatu zuen txapelketa hau, eta ordutik, epaimahaikideak herriz herri ibili dira eskualdeko herri guztietako balkoiak begiratzen. Elgoibarren Itziar Badiolaren balkoia aukeratu dute. Itziarrek esan digun bezala, "aspalditik ditzut lorak gustuko, eta

beti eukitzen dot balkoia lorez apainduta". Itziarrek 100 euroko saria jaso du, loragintza produktuetan gatzatzeko. Eskualdeko sari nagusia Irene Urisabel eibartarrak irabazi du.

Iaz antolatu zuen Debegesak lehenengo aldiz balkoi apainketa lehiaketa, eta izan zuen arrakasta ikusirik, bigarren edizioa antolatu du aurten. Lehiaketaren helburua eraikuntzen edertasuna handitu, eta ingurugiroarekiko kontzientziazioa areagotzea da.



### Merkatu Plazako dendariak 50 euroko lau txeke banatu dituzte

Hilabete honetan 60 euroko 4 sari banatu dituzte Merkatu Plazako dendariak. Angel Martin, Jose Mari Garate, Pilar Agirrezabal eta Maria Teresa Alzibar izan dira irabazleak. Saria erosketari txeketan jaso dute, eta Merkatu Plazako postuetan gastatu beharko dute. Datorren hilabetean, hiru afari zozketatuko dira.


### Apatz ordenazioa Elgoibarren

Datorren igandean, uztailak 13, Donostiako gotzain Joan Mari Uriarte jaunak apaiz ordenatuko du Antton Etxebeste Goikoetxea, diakonu donostiarra, Elgoibarko San Bartolome parrokiari.


Antton Etxebestek 42 urte ditu, eta Donostiako Egia auzokoa da. Magisteritza eta Euskal Filologiako ikasketak egin zituen Donostian, Seminariora joan aurretik. Maria Reina parrokiari aritu zen parrokiako zenbait zerbitzutan laguntzen. 37 urte zituela sartu zen Seminarioan, eta Seminarioko formazio urteak egitearekin batera, Trintxerpe, Martutene eta Elgoibarko parrokiari laguntzen ibili da.



**URTEURRENA**  
2001eko uztailaren 26an, 91 urte zituela hil zen **TOMASA MUGURUZA AROSTEGI**ren oroimenez **URTEURRENEKO MEZA** izango da Sargoate gurutzean ostiralean, hilak 25, goizeko 11:00etan.  
Joango zaretenoi eskerrak alde aurretik.



**ESKERTZA**  
2003ko uztailaren 6an, 70 urte zituela hil zen **BEATRIZ LOPEZ PELAYO**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Adituen esanetan, hilabeteko oporrak jarraian hartzea mesedegarriagoa da

## OPORRAK SEGIDAN ALA ZATITUA HARTZEN DITUZU?



**PAULA REY**

**27 urte, administraria**

Orain ez dut lanik egiten, baina ahal izanez gero, nahiago dut zatikatuta hartzea. Senarrak ere horrela hartzen ditu, udan 15 egun, Gabonetan astebete eta Aste Santuan beste bat.

**JAIONE TUDELA**

**35 urte, jantoki laguntzailea**

Danak jarraian. Bi hilabete pasa izaten ditut oporrak, beraz, ezin naiz kejavu. Baina egun batzuk, urtean zehar egoten diren zubiak luzatzeko gordetzea ondo dago.



**JUAN ESNAOLA**

**58 urte, artezlaria**

Batzutan agostuan eitzen ditxut egun batzuk lan, baina gero, dana jarraixan hartzen dot. Zatikatuta hartzia ere, ez litzake txarra izango, baina gustura nao. Hilabetian ondo deskonektatzen da.

**FCO. JAVIER FERNANDEZ**

**42 urte, espezialista**

Orain arte beti hilabete osoa hartu izan dut, baina aurren hiru aste izango ditut jai udan, eta astebete urtean zehar hartzeko. Esperientzia berria da niretzat, eta gustatzen zait.



**MARIA JESUS IRIZAR**

**47 urte, administraria**

Abuztuan hilabete osoa hartzen dut jai. Senarrak ere abuztuan hartzen dituenek, ez dut oporrak aldatzerik planteatu. Hala ere, astebete urtean zehar hartzeko gordetzearen aldekoa naiz.

**MIGUEL ALONSO**

**43 urte, laser operarioa**

Normalean hilabete osoa hartzen dut, lan egin izan dudana enpresek itxi egin dutelako. Opor luzeagoak izatea gustatuko litzaidake, baina hilabete ondo dago deskantsatu eta deskonektatzeko.



MaTape **taberna**



©Ipepam El e@oiffiffic:QIeDun

egianero 7:00 f. et  
itzen clugu

414.ii4m,  
IJ45

San Frantzisko. 60  
t ei.943 74 19 43



**karkizano**

San Frantzisko, 14 — Tel. 943 74 05 49



*Arrieta*

San Bartolome, 18  
Tel. 943 74 08 49



VICENTE ETA REMEDIOS  
SURYA BELARDEI.-



## EDERTASUNA LORE ETA LANDAREEKIN



aindu azala modu naturalean

**Olio begetalak:** Gorputza zaintzeko bereziak dira, azalean barneratzeko gaitasun handia daukate, eta epidermisa hidratatu eta babesteko garrantzitsuak dira.

SURYAk olio berezi hauen aukeraketa bat egin du, azal bakoitzaren beharren arabera, tratamendu natural desberdina eskainiz.

Edertasun olioak azalari laguntzan dio, nutritu egiten du, eta azalaren elastikotasunarentzat, eta zelulen metabolismoarentzat eragin positiboa dauka.

Gorputzak, azalak, ileak, atzazalek, bekainek, betileek egunero eraso bortitza jasaten dute kanpotik (haizea, hotza, beroa, hautsa, eguzkia, produktu kimikoak, radioaktibitatea, estresa...).

Olio hauek, %100 natural eta puroak dira, ez daukate koloranterik ezta usaingaririk.

### **Edertasun olioak Propietateak:**

**Aguakatea:** Zimurrak gutxitzeko, azalaren elastizitatea hobetzen du.

**Albarikokea (hezurra):** Oso hidratantea, azal lehor eta indarra eta gatzetasuna galdu dutenentzat egokia.

**Borraja:** Epidermisa berritzen du. Azal delikatuentzat egokia. Estriak gutxitzeko aproposa.

**Kalendula:** Haurrentzako, batez ere. Azal urratuak, eguzkiak erretakoak... berritzen ditu.

**Jojoba:** Ilea indartu eta hidratatzeko egokia. Grasa gehiegikeria eta ilearen erortzea sendatzen ditu.

**Onagra:** Zahartzaroaren kontrako sendagaia, azal desbitalizatuentzat eta lehorrentzat. Orbaintzailea.

**Milazulo (hiperikoa):** Erredurek, eltxoen pikadurek, kolpeek sortutako gaitzak arintzen ditu.

### **Olioak nola aplikatu**

Tratatu beharreko tokian eman, eta bere hedapena zabaldu eta azalean barneratzeko masaia suabe bat eman. Gaez erabiltzea gomendatzen da.

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu,  
deitu BARRENe 943 74 41 12ra



## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

### **Kemen Belardenda**

(Medikuntza naturala, F. oe bacm, masaia, makroolotika. yoga)

San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### **Surya Belardenda**

(Zure osasunerako erremedio naturalak)

San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

## OPTIKAK

### **Ikus Optiko-optometrista**

ar1 barloiorne, t U • Iei: **943 74 37 34**

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## Uzuri

(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

### **Itziar Sarasketa**

I rai • Tel: **943 74 35 62**

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## PODOLOGOAK

### **Iñaki Rivero**

San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

### **Oinberri**

Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**

Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Larunbatetan: 10:00-13:00

Gida honetan agertu nahi baduzu,  
deitu **943 74 37 04ra**

## IMHko Heziketa Zikloetako 141 ikaslek ikasketa amaierako diploma jaso zuten

**H**asierako Lanbide Heziketako (HLH) ikasleen ikasturte bukaerako ekitaldia ospatu zen ekainaren 27an IMHn. Ekitaldian Joxean Egaña, IMHko Zuzendaria; Marivi Agirregomezkorta, Elgoibarko Alkatea eta IMHko Fundazioko Patronatuaren Idazkaria; Xabier Ortueta, AFMko Zuzendari Laguntzailea; eta Josu Aboitiz Eusko Jaurlaritzako Etengabeko Prestakuntzarako Zuzendaria izan ziren.

Diploma ematearekin batera, zorionak eman zizkieten Goi-mailako Proiektu Mekanikoen Garapena,



Mekanizazio Bidezko Produkzioa, eta Industri Ekipoen Mantenimendua ikasi

duten ikasleei, eta baita Erdi-mailako Mekanizazio Teknikoa ikasi dutenei ere.

Bestalde, bizitzan zehar prestatzen jarraitzeko beharra, ingelesa, derrigorrezko hirugarren hizkuntza dela, jaso duten prestakuntzaren ondoren lan munduan dauzkaten aukera interesgarriak, Elgoibar eta inguruko eskaintza, lan eta bizitza kalitatea moduko mezuak entzun ahal izan zituzten ikasleek. Azkenik, ikasle guztiak animatu zituzten industri arloko munduan eta bereziki makina erremintaren sektorean etorkizuna eta lanbidea garatzera, bereziki, diploma jaso berri zuten 11 neskak.

## Ohorezko Matrikula eskuratu dute Elgoibarko Institutuko Batxilergoko 10 ikaslek

**D**atxilergo amaierako ekitaldia ospatu zuten Elgoibarko Institutuko ikasleek joan zen ekainaren 27an Herriko Antzokian. 10 ikaslek ohorezko matrikula jaso zuten: Iosu Aizpuru Larrañaga, Eider Azkunaga Hernandez, Julen Ansola Irureta, Ainara de Pedro Epelde eta Gemma Fernandez Gonzalez elgoibartarrak, Izaro Mendikute Mancisidor mendarotarra, Eneko Clarke Abendaño eta Urtzi Llano Castresana debarrak eta Roke Borinaga Trebiño eta Hasier

Ugarte Ezenarro soraluzearrak.

Bestalde, Arkaitz Beristain eta Oihane Zubiaurre Heziketa Bereziko bi ikasleek, oso ondo bukatu dute Batxilergoa, eta aipamen berezia jaso zuten.

Ekitaldia musika eta dantzaz alaiturik egon zen. Lurdes Odriozola eta Josu Mujikak zuzendutako koreografiak dantzatu zituzten, eta Eli Ibarra eta Itziar Gurrutxaga Athletic-eko jokalaria izan ziren gonbidatu moduan.



## Atxutxiamaiak Aisialdi Taldeak antolatuta San Fermin Txiki Eguna ospatu zen



Urtero bezala, Atxutxiamaiak Aisialdi Taldeak San Fermin Txiki Eguna antolatu zuen. Joan zen astelehenean, uztailaren 7an, San Fermin Egunean, Elgoibarko Plaza Handiak Iruñako Estafeta kalea zirudien. Goitik behera zuriz jantzita, eta zapi gorria lepoan jarrita, umeek beren trebezia erakutsi zuten bi hankako zezenen aurrean. Entzierroaren ostean, zalditxoekin eta zezentxoekin gozatzeko aukera izan zuten. Atxutxiamaiak bestalde, Udaleku ireki eta itxiak antolatu ditu.

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza 1 eta 2 mailako haurrek udaleku irekietan hartuko dute parte uztailaren 18ra arte. Guztira 100 ume inguru dabilta. Udaleku itxietan berriz, Lehen Hezkuntza 5 eta 6. mailakoak Lizarrara joango dira uztailaren 14ra arte. Bertan, gauza desberdinak ikusi eta ikasteaz gain, beste herri batzuetako haurrak ezagutzeko aukera izango dute; besteak beste, Ordizia, Lasarte, Soraluze eta Usurbilgo jendea izango da.





# SANTANAK

**BOST!! LAU!! HIRU!! BI!! BAT!! BADATOZELA AURTENGO SANTANAK ERE!! JAIGIROA, BANDERATXOAK, ZAPI BERDEAK, FESTA, ZARATA... JAIETARAKO PRESTATZEN JOAN ZAITEZTEN, PARRANDARAKO ONDO ENTRENA ZAITEZTEN, HEMEN DOAKIZUE ORRI PARE HAU AURRERAPEN GISARA, EA UZTAILAREN 24TIK 27RA LUZATUKO DIREN AURTENGO SANTANEI NOLAKO ITXURA HARTZEN DIEZUEN... ONDO PASA, ASKO-ASKO LIGATU ETA DIRUAK ERE...GASTATU!! URTEAN BEHIN EZ OMEN DA KALTERAKO ETA!!**



## PIROPO LEHIAKETA

In Leikek bigarren aldiz antolatu du piropo lehiaketa joan zen urtean eduki zuen arrakasta ikusita. Inork exenplua hartu nahiko balu ere hona iazko irabazleek piropoak belarriak pixka bat goxatzeko. Zuei esanak balira bezala irakur ditzakezue...Txikietan Lorea Riaño izan zen irabazlea honako piropoarekin: "Zure aurpegiaren alaia, zure gorputzaren liraina: nire bihotzaren bonboia". Eta nagusien mailan, aldiz, honako hau idatzi zuen Josu Motriko medarotar gazteak: "Hitzek askotan norabidea galdu ohi dute zurekin hitz egiten dudanean". Aurten ere iaz bezala bi pertsonarentzako afaria izango da nagusientzat ezarritako saria; txiki, berriz, opari bat emango zaie. Beraz, eta animatzen bazarete, hilaren 18a arte duzue astia piropoak Ormola eta Txirristaka tabemetan nahiz liburutegian jarri diren kaxetan botatzeko. Animate!!Ez bezate esan euskaldunok hotzak garenik!!!

## IAZKO PIROPO LEHIAKETAKO IRABAZLEA



Abila da "Motri" hitzekin. Bera izan zen iazko piropo lehiaketako irabazlea eta sari gisa bi pertsonarentzako afaria eskuratu zuen gainera. Hori bai, ez dakigu bere piropoek neska asko konbentzitzen ote duten... Izan ere, afaltzera kuadrillako batekin joate horrek usain txarra ematen dio istorioari... Dena den, ziur oso ongi pasa zutela biek batera, eta, lasai "Motri", egunen baten baten batek funtzionatuko du eta!

## "Kuadrillako Ander

Lagunekin potetzen genbizela piropo bat idazteko eskau ziguten. Barra gainian lehenengo okurritx utakua idatzi naban ta hoixe bota naban

Puf!, hainbeste dazkat buruan!  
Luze joko leuke danen artian bat aukeratzia!

Por supuesto!!!

gitxiau  
kin ho

Bertsor  
ene bai  
pauso  
ume xa  
Negar j  
maitasy  
maitem  
neska h  
emozio  
negarrt  
Oihu in  
Nire m



### GAZTE ASANBLABAN ZER BERRI?

Gazte asanbladakoek esan digutenez aurten ez dute aurreko urteetan bezalako ekintzarik antolatuko. Izan ere, Gaztetxerik ez dute eta ezinezkoa zaie beste urte batzuetako lehiaketa, kontzertu, joko eta horrelakorik antolatzea. Hori bai, iaz bezala txozna bat jarriko dute herriko plazan. "Espero deu datorren urteko leku faltian problema hau ez eukitzia" diote Gazte Asanbladakoek.

Bestetik esan jada martxan dagoen Gazte Asanbladak antolatutako Udako futbito txapelketaren finala ere Uztailaren 24an izango dela, jaien hasierarekin batera. Sei talde dira apuntatuta daudenak eta ligilla eran (denak denen kontra) jokatzeko ari diren txapelketako finalerdiak uztailaren 21ean jokatu ondoren aipatutako egunean izango da final handia. Afari bat izango du sarizat talde garaileak.

Azkenik aipatu Tourrera joateko autobusean izena emateko azken eguna uztailaren 11 dela. Interesatuak Ormola eta Txirristaka tabernetan apunta daitzete. Asmoa, uztailaren 18an, ostiralean, Mendarotik abiatu eta bi etapa ikusi ondoren berriz ere igandean bueltatzea litzateke, Ordaindu beharrekoa, aldiz, 40 euro. Ea animatzen zareten!!



## aikakin jun nintzan afaltzera"

Nahi baino

uak motzegiak dia, bertsuet  
t oldatzen naiz.

Behin edo behin despista-

turen batek...jeje

ski:

sortu zidanez

irrarra,

hitzak olerki

sara:

algara,

balada,

utzi ninduen

girada...

ada,

ara...

nahi dizut:

zara!

Bai, noski,

noski.

Hau da asuntuan

onena. Kuadrillako Ander Zulaika-  
kin!!

### UZTAILAK 12, larunbata

15:30 Platerari tiro txapelketa Larraskandako kanpan. Izenematea: 14:30etik 15:30era  
23:00 Gardokirekin dantzaldia Zelaikuan

### UZTAILAK 19, larunbata

22:30 Antzerkia Udaletxeko Udalbatza aretoan: "Arraultza delikatuak"

### ZAHARTZAROARI OMEN

#### UZTAILAK 20, igandea

11:00 Kalejira Mendaroko txistularien eskutik  
12:00 Pilotalekuan meza  
12:30 Dantza jaialdia Mendaroko trikitalariekin  
14:00 Bazkaria Aizpe Elkartearen

### BEZPERA

#### UZTAILAK 24, osteguna

19:00 Txupinazoa Udaletxetik  
19:30 Salbea Azpilgoetako elizan.  
Ondoren, buruhandien kalejira  
23:30 Dantzaldia Lisker taldearekin

### SANTIXO EGUNA, KUADRILEN EGUNA

#### UZTAILAK 25, ostirala

10:00 Kalejira Mendaroko txistularien eskutik  
11:30 Poteo Herrikoia trikitalariekin  
12:00 Meza Garagartzan  
13:00 Paella lehiaketa  
14:30 Herri Bazkaria Goñati pilotalekuan  
16:00 Herriko Enparantzan Quads pista eta Zezen mekanikoa  
18:00 Sokamuturra Garagartzan  
22:30 Nagusien danborrada  
0:30 Diskoteka enparantzan  
1:00 Playback lehiaketa  
2:00 Diskoteka goizeko 6ak arte

### SANTANA EGUNA

#### UZTAILAK 26, larunbata

10:30 Prozesioa Azpilgoetatik  
11:00 Meza Santa Anako ermitan  
12:00 Erromeria bertsolari eta trikitalariekin  
Bertsolariak: Lizaso eta Egaña  
Trikitalariak: Ostolaza eta Andonegi  
14:30 Bazkaria Toki Alai jatetxean  
18:00 Herri Kirolak Goñati pilotalekuan  
23:00 Su jaialdia ibaiko pasealekutik  
23:15 Dantzaldia Kresala orkestrarekin  
2:30 Diskoteka enparantzan

### HAURREN EGUNA

#### UZTAILAK 27, igandea

10:00 Kalejira Mendaroko txistularien eskutik  
12:00 Haurren danborrada Bizi Poza txarangarekin  
16:00 Puzgarriak, rokodromoa eta tailerrak  
19:00 Sokamuturra txikientzat enparantzan  
Ondoren, kalejira Bizi Poza txarangarekin

# Erretratu zaharra



.....

Ilabete honetako erretratu zaharra Carmen Larrañagak laga digu. 1959. urte ingurukoa da erretratua, eta bertan dantzariz jantzitako bi neskatila ageri zaizkigu: Carmen Larrañaga eta Teresa Larrañaga.





### Farmazia - okindegia

#### UZTAILA

#### ABUZTUA

##### EGUNEZ

##### GAUEZ

11	Ibañez	Ibañez
12	Bidasolo	Bidasolo
13	Bidasolo	Bidasolo
14	Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria
15	Fernandez	Fernandez
16	Bidasolo	Bidasolo
17	Zabaleta	Zabaleta
18	Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria
9	Bidasolo	Ibañez
20	Ibañez	Ibañez
21	Bidasolo	Bidasolo
22	Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria
23	Fernandez	Fernandez
24	Bidasolo	Bidasolo
25	Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria
26	Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria
27	Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria
28	Ibañez	Ibañez
29	Bidasolo	Bidasolo
30	Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria
31	Zabaleta	Zabaleta

##### EGUNEZ

##### GAUEZ

1	Yudego	Yudego
2	Etxeberria (Errosario kalean)	Ibañez
	Etxeberria (Errosario kalean)	Ibañez
4	Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
5	Ibañez	Ibañez
6	Yudego	Yudego
7	Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
8	Ibañez	Ibañez
9	Yudego	Yudego
10	Yudego	Yudego
11	Ibañez	Ibañez
12	Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
13	Ibañez	Ibañez
14	Yudego	Yudego
15	Yudego	Yudego
16	Etxeberria (Errosario kalean)	Fernandez
17	Etxeberria (Errosario kalean)	Fernandez
18	Yudego	Yudego
19	Zabaleta	Zabaleta
20	Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
21	Zabaleta	Zabaleta
22	Yudego	Yudego
23	Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria

ESCALA, kekulde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38  
 FERNANDEZ, Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42  
 ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA **25** barixakua Eizagirre  
**13** igandea Fotero **27** igandea Fotero  
**20** igandea D.Mercedes **31** eguer Ibarrenea

#### OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.YA (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odoi Emailak	943 74 39 36

#### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

#### UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

#### BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

#### ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

#### IKASTETXEA

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H	943 74 41 32
Institutua	

Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

#### KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73
El Correo Español	943 74 10 82
Zazpiki irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

## Eusko Tren

## Eusko Tren

KUTOBUSAK

#### DONOSTIA-BILBO

Egunero	
Donostiakstsm	5.45 06.45... 20.45
Elgoibar	07.02 08.02... 22.02
* jaiegunetan 745can hasiko dira	

#### MENDARO-ELGOIBAR

Egunero	
Mendaro	07.50 08.50... 21.50

#### ELGOIBAR-DEBA

Udarako tren bereziak	
Elgoibar	14.01 15.42 18.01 19.42
Mendaro	14.10 15.52 18.10 19.52
Altzolan	ez da gelditzen

#### BILBO-DONOSTIA

Egunero	
	06:00 7.00... 20.00
Elgoibar	07.23 08.23 21.23
* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira	

#### ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan	
Elgoibar	07.25 08.25 10.25... 21.25

#### Jaiegunetan

Elgoibar	08.25 09.25 10.25... 21.25
----------	----------------------------

#### DEBA-ELGOIBAR

Udarako tren bereziak	
Deba	15.00 16.20 19.00 20.20
Altzolan	ez da gelditzen

## Kenya, Txebronia eta Haritz Euskal Dantzari Taldeko dantzariak izango dira Nazioarteko XVII. Folklore Jaialdian

Ekitaldia uztailaren 24an, ostegunean, izango da Kiroldegian (22:30)

**H**errialde urrun eta exotikoetatik etorritako dantza taldeen folklore erakustaldiak ikusteko aukera izango dugu elgoibartarrok uztailaren 24an, ostegunean, Olaizaga kiroldegian (22:30). Haritz Euskal dantzari Taldeko kideez gain Kenyako eta Txetxeniako dantzariak arituko dira Elgoibarko Nazioarteko 17. Folklore Jaialdian. Kenyatik "Algap" taldea etorriko da. 90eko hamarkadan sortu zen Nairobi, eta hiriko Antzerki Akademian ikasitako artista (abeslari, musikari eta dantzari) onenek osatzen dute. Bere emanaldiekin, taldeak Ekialdeko Afrikako herrialde honen irudi adierazgarrietara hurbiltzen gaitu: hondar txuriko hondartza luzeak, antilopeen korrikaldi eta jauziak sabanan, eta bere fauna aberatsa, alegia, gizakiaren seaskan barrena ibilaldia. Taldeak Masaieen ohiko dantzak erakustez gain, herrialdeko etnietara hurbiltzeko dantzak

egingo ditu. Darabiltzaten jantziak ikusgarriak dira, koloretsuak eta naturaren baliabideetan oinarrituak. Taldeak Europa osoko hainbat folklore jaialditan parte hartu du, baina hauxe izango da lehen aldia Euskal Herrian.

Txetxeniako "Vainah" Estatu konpainia

Bigarren talde atzeritarra, Txetxeniako Errepublikako "Vainah" Estatu Konpainia 1939. urtean sortu zen. Bere erreperitorioaren zati onena Kaukaso aldeko folklore ondarean oinarritzen da. Talde honen sormen lana birritan eten da; 1944an II. Mundu Gerratearen ondorioz eta XX. Mendearen bukaeran Txetxeniako gudaren ondorioz. Bien ondoren berragertu da taldea berriz. Taldearen zuzendariak, Dikalu Muzakaev-ek, Errepublikako hirietako artista txetxeno gazteak bildu eta bi urtez lan eta entsegu



gogorren ondoren profesional bihurtu ditu. Talde berrituak hainbat emanaldi eskaini ditu urte osoan.


Bestalde, Txankakuako dendetan sarrerak erosten dituen jendearen artean lau sari banatuko ditu Txankakua Dendarien Elkarteak; 60 euroko saria izango da bakoitza, Txankakuako dendetan erosketak egin ahal izateko.

## Zine komertzialeko emanaldietan 17.455 ikusle pasa dira Herriko Antzokitik

**H**erriko Antzokiko zine komertzialaren Hinguruko hainbat datu helarazi dizkigute Kultura Saitetik. Gauzak horrela, 2002ko irailetik 2003ko maiatzera bitartean 17.455 ikusle pasa dira Herriko Antzokitik, iaz baino 3.210 ikusle gutxiago. Guztira 70 filme bota dituzte. Beraz, 250 ikusle izan ditu batez beste film bakoitzak. Dena dela, iaz gertatu zen moduan ikusle gehien erakarri duen filmea "El señor de los anillos: Las dos torres" izan da 724 ikuslerekkin. Trilogiaren lehen zatiak 1.250 ikusle erakarri zituen iaz. "Harry Potter, Camara secreta" izan da bigarren filmerik ikusiena (664) eta "The Ring" (537) hirugarrena. Ikusle gutxien, berriz, "Spy Kids 2" (46) eta Pluto Nash (54) umentzako filmeek izan dituzte. Asteburu osoko emanaldiei dagokienez "Las Horas" filmeak izan du arrakasta

gutxien 78 ikuslerekkin. Hilabetekako azterketari dagokionez, neguko hilabete hotzak direla jendea zinemara eramateko egokienak erakusten dute datuek. Urria

(2.337) eta urtarrila (2.168) izan dira hilabete zinemazaleenak eta ekaina Herriko Antzokiko eserlekuak hustuen egon den hilabetea, 849 ikuslerekkin.



"El señor de los anillos" filma izan da urteko arrakastatsuen 724 ikuslerekkin.

IKUSLE KOPURUA HERRIKO ANTZOKIAN	
2.002	
Iraila	1.511
Urria	2.337
Azaroa	1.927
Abendua	2.045
2.003	
Urtarrila	2.168
Otsaila	1.961
Martxoa	1.650
Apirila	1.735
Maiatza	1.272
Ekaina	849



## Ander Arambarrik 3. postua lortu zuen Gipuzkoako Aurreku Txapelketan

### I. Bereziartua Musika Eskolako 18 dantzari aritu dira Gipuzkoako Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketan

**E**lgoibarko Inazio Bereziartua Musika Eskolako dantzariak, 2002. urteko azarotik aurtengo maiatzera bitartean, Euskal Dantzarien Biltzarrak antolatzen duen Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketetan parte hartu dute. Lehendabizi ligaxka bat jokatu zuten hainbat herritan. Puntuaketa onenak lortu zituzten 15 dantzariak sailkatu ziren finala jokatzeko. Gazteen mailako (7-11 urte) Aurreku Txapelketan Julen Conde eta Ander Arambarri izan dira parte hartzaile elgoibartarrak. Elgoibarko Aurreku Txapelketan, Julenek bigarren postua eta Anderrek hirugarren postua eskuratu zituzten. Beasaingo txapelketan, berriz, hirugarren postuan amaitu zuen Julen Condek. Biak sailkatu ziren maiatzaren 24an Erreterian jokatu zen finala jokatzeko. Bertan, Ander Arambarrik sailkapen nagusiko hirugarren postua eskuratu zuen eta Julenek 10. postua. Nesken mailako Soinu Zahar Txapelketari dagokionez, 7 eta 11 urte bitarteko artean Nora Hadik lortu zuen posturik



*Ezkerreko argazkian neskak. Eskuinekoan Julen Conde eta Ander Arambarri.*

aipagarriena, Urretxuko Txapelketa irabazi baitzuen. Nora Hadi, Ane Gorriti eta Nerea Ayesta aritu dira gazteen mailan. 11 eta 15 urte bitarteko mailan, berriz, Ane Astigarraga, Gorane Gonzalez, Janire Gorriti, Nahia Abad, Melani Lozano, Elorri Irusta, Garazi Konde, Ane Belza, Dorleta Fernandez, Miren Ramos eta Maitane Moreda izan dira parte hartzaile elgoibartarrak. Sailkapen onenak Maitane Moredak lortu zituen, Beasainen 2. postua eta 3. postua Oiartzunen. Finala Legazpin

jokatu zen maiatzaren 18an. Gaztetxoenen mailan Ane Gorriti 4. postuan sailkatu zen, Jaione Maguregi 8. postuan, Nora Hadi 11. postuan eta Nagore Rodriguez 12. postuan. Helduagoetan Miren Ramos 9. postuan, Maitane Moreda 10. postuan, Dorleta Fernandez 13. postuan eta Elorri Irusta 15. postuan sailkatu ziren. Maila oso altua egon dela txapelketa hauetan aipatu digute irakasleek, eta akats txikiak asko galtzea eragin zezakeela azaldu digute.

**Anchústegui**  
  
**Sanyfer**

**ESPOSIZIOA  
ALMAZENA  
BULEGOA**

Olaso industrialdea  
 Olasope, 5 » 20870 - ELGOIBAR  
 Tel: 943 74 33 44 - 74 23 71  
 Faxa: 943 74 37 11



**IIIEMMUM**

Errosario, 30  
 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- \* IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA
- \* MULTIKOPISTAK
- \* FOTOKOPIADORAK
- \* PLANOEN BIRREGILEAK
- \* ERLOJU INDUSTRIALAK
- \* MARRAZKETA MATERIALA
- \* INFORMATIKA
- \* FAX

**ELENA**

**ileapaindegia**

**Depilazio Elektrikoa**

San Frontzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

**vil** **Mandiola Egurrak S.L.**

Domingo Arrizabalaga


SALEROSKETA  
 BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 ltr 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



## Bidasoan jokatu du Unai Arrieta eskubaloi jokalaria elgoibartarrak

Azken bi urteak Cadagua Galdar taldean pasa ditu



*Bidasoan jokatu du Unai Arrieta 22 urteko ezker hegalekoak.*

**B**ere lehengo taldera, Irungo Bidasoara itzuliko da Unai Arrieta, Kanariar Irletako Cadagua Galdar eskubaloi taldean azken bi urteak pasa ostean. 22 urteko ezker hegalekoak minutuen bila alde egin zuen "zorioneko" irletara. Unai berak aitortu digunez gauzak oso ondo joan zaizkio "bi urte oso onak pasa ditzut bertan eta nere jokalaria formaziorako aurrerapau so garrantzitsua izan da. Taldia dagokionez, talde ona osatu gendula uste gendun, baina asko kosta zitzaigun jokalaria berri guztixak taldian integratzia. Lehen itzuli negargarria egin gendun pasa dan denboradixan. Jeitsiera postutan egon ginan jardunaldi askotan. Bigarren itzulixan, berriz, Asobal ligako, munduko ligarik onenean, bigarren talderik onena izan gera eta entrenatzaileen konfiantza euki dot".

Taldea desagertu

Dena ez da arrosa kolorekoa izan, Cadagua Galdar taldea desagertu egin baita arazo ekonomikoak tarteko. "Pertsonalki zorte handix euki dot, kontratua aurren bukatzen jatanez hasita naualako merkatuan begira. Lau hilabete kobratu gabe egotia izan da eragozpen bakarra, baina kontratu luziauak zitzuzten jokalarixek arazo larriauak ditzuzte". Alicanteko Altea eta Arrateren eskaintzak ere jaso zituen, baina Bidasoara itzultzea erabaki du Unai. Kontratua sinatzeko detaile txiki batzuk lotzea besterik ez zaizkiola falta aipatu digu. Talde berritua eta sendoa osatzen ari da Bidaso. Entrenatzailearen aulkian Unai oso ondo ezagutzen duen pertsona eseriko da, azken 12 urteetan Cadagua Galdarreko entrenatzailea izan den Jordi Ribera kataluniarra, hain zuzen ere.

## Arkaitz Mujikak bigarren urtez jarraian irabazi du Jesus Loroño Memoriala

**A**rkaitz Mujika txirrindularik Jesus M.Lororio Memoriala irabazi zuen pasa den uztailaren 5ean. Zikloturista probarik garrantzitsuenetakoan jarraian lortzen duen bigarren garaipena izan da, iaz ere lehen postuan zeharkatu baitzuen helmuga. Durangon hasi eta Urkiolan bukatzen den 175 kilometroko lasterketan; Ixua, Sollube, Asensio eta Urkiola moduko mendate gogorrak igotzen dira, baina oztopoak oztopo 33 km/h.ko batez bestekoa lortu zuten txirrindulariek. Hau gutxi balitz, probako errekorra hautsi zuen elgoibartarrak 5:26:00 denborarekin, iaz baino 15 minutu gutxiago. Osterantzean iazko lasterketaren antzerakoa izan zela azaldu digu Arkaitzek, "20 lagun ailegau ginan Urkiolako mendate hasierara, baina



aldapian eraginez gutxinaka jendia geratzen jun zan. Azkenian bi txirrindulari geratu ginan lasterketa buruan. Txakurzuloko aldapa gogorrak atzian laga ostian, 500 metro faltan, jo naban azken

erasua eta bakarrik heldu nintzan. Iaz ere taktika berdina erabili naban eta ondo atera jatan". Aurren inoiz baino txirrindulari gehiagok, 700 lagunek, hartu zuten parte proban.



## David Conde izan zen elgoibartarrik onena Zegama-Aizkorri mendi maratoian

5 herritarrek hartu zuten parte 42 km.ko proba gogorrean




Ezkerreko argazkian David Conde. Eskuinekoan Asier Arrieta eta Xabier Bergaretxe.

**p**asa den uztailaren 6an jokatu zen Zegama-Aizkorri II. mendi maratoia. Euskal Autonomo Erkidegoko gailurrik garaienetako lau (Aratz, Aizkorri, Aketegi eta Atxuri) igarotzen dira 42 kilometroko proba gogor, tekniko eta zailtasun handiko honetan. 325 ausart elkartu ziren Zegamako irteeran eta hauetatik bost elgoibartarrak ziren. David Conde izan zen herritarrik onena 62. postuan 5:09:29 denborarekin. Xabier Bergaretxe 92. postuan sailkatu zen 5:22:29 denborarekin, Asier Arrieta 146. postuan 5:38:51

denborarekin eta Tñaki Burunza 253. postuan 6:48:19 denborarekin. Luis Santa Mariak ez zuen proba amaitzerik lortu. 291 parte hartzailek lortu zuten proba bukatzea eta Fernando Garcia madrildarra izan zen irabazlea (4:08:44). Amezketako Joan Martin Tolosak iaz ezarritako errekorra (4:14:23) hautsi zuen. Emakumezkoen lasterketan Esther Hernandez bartzelonarrak irabazi zuen (5:08:52). Iazko lasterketan Pilar Arriola elgoibartarra bigarren postuan sailkatu zen, baina aurtan ezin izan du parte hartu ama izan berri baita. Zorionak!

## Xabier Alustiza legazpiarrak irabazi zuen I. San Migelgo Rallysprint-ean

Pasa den zapatuan, uztailaren 5ean, jokatu zen San Migelgo Rallysprint-aren lehen edizioa. Elgoibar eta Markina batzen dituen 10 kilometroko errepide zatian jokatu zen eta Xabier Alustiza Legazpiarrak irabazi zuen proba. Seat Ibiza Junior bat gidatuz bera izan zen lau gune kronometratutan denbora onenak lortu zituena, 28:24 guztira. Bere lehen garaipena lortu zuen legazpiarrak Elgoibarren. Fernando Brizuela (Ford Sierra Cosworth) sailkatu zen bigarren postuan 8 segundura. Parte hartu zuten 39 auto gidarien artean bakarra zen elgoibartarra, Ion Gonzalez.



Super 5 GT Turbo autoa gidatuz lasterketa ona egiten ari zen, baina Etxeberrirantz zihoala palierra apurtu eta proba bertan behera laga behar izan zuen.

## 800 pertsonak erabili zituzten Mintxetako igerilekuak uztailaren 8an

Errekorra **hautsi zuten** Mintxetako aire libreko igerilekuek pasa **den uztailaren 8an**, martitzenean. 800 pertsonak erabili zituzten igerilekuak egun horretan, inaguratu zirenetik inoiz izan den jendetzarik handiena, alegia. Mintxetako aparkalekuak gainezka egon ziren eta IMHko aldapan ikus zitezkeen autoak. Bestalde, Udal Kirol Patronatutik adierazi digutenez ekainaren 7tik uztailaren 7ra bitartean 8.000 erabiltzaile izan dituzte igerilekuek eta 324 denboraldiko bono atera dira, hau da, 728 lagunek atera dute txartela uda sasoiaren igerilekua erabili ahal izateko. Une honetan 3.211 bazkide ditu Udal Kirol Patronatuak

## Haurrentzako Tenis Jaialdia izango da zapatuan, hilaren 12an, Olaizaga kiroldegian

Elgoibarko **Udal Kirol** patronatuak Tenis Jaialdia antolatu du Divertenis taldearen laguntzarekin. Olaizaga kiroldegian izango da jaialdia goizez 11 :00etatik 13:30etara eta arratsaldez 16:30etatik 19:00etara. Bartzelonan bizi den Tomas Olmo elgoibartarra izango da haurrak **tenisaren mundura** hurbiltzeko ardura izango duena. Helburua lortzeko hainbat jolas izango dituzte aukeran 4 eta 5 urtetik gorako haurrek. Besteak beste, abiadurazko radarra, pilotak jaurtitzeko **makina**, **Agassi** tenislariaren irudiarekin egindako puzgarria, jolasak eta baita sariak ere. Bertan egongo da beharezko material guztia Iaz 200 haurrek parte hartu zuten tenis jaialdian.

## OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## Iana

### ESKAERA

• Neska gazte eta euskalduna uztailean umeak zaintzeko prest. tr 666 906 711 (Ainhoa)

\* Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko prest. Egun erdiz. v 639 882 003 (Piedad)

Emakumea gaixoak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. 23. 943 03 03 21 (Mertxe)

Emakumea uztailean goizez umeak zaindu edo klase partikularrak emateko prest. tr 635 74 43 12

### ESKAINTZA

• Mendaroko kafetegirako kamarera behar da. v 656 73 28 20

Barrarako kamarera behar da. tr 615 72 34 80

Abuztuan goizeko 9:00etatik 14:00etara, 4 eta 8 urteko bi ume zaintzeko emakumea behar da. tr 943 74 02 94 (21:00etatik aurrera)

• Neska gaztea behar da, aste-buru eta abuztuan tabernarako. Martxako taberna. v 943 19 23 37 (Josune)

\* Etxeko lanak egiteko emakumea behar da. .fl. 676 29 49 35

• Tabernan lan egiteko neska behar da irailetik aurrera. v 943 74 31 17

• Esperientziadun kamareroa behar da asteburuetan barran lan egiteko. v 687 05 17 89

• Jatetxerako kamareroa behar da. tr 943 12 12 62

• Osintxuko jatetxerako, asteburuetan fregaketa lanak egiteko emakumea behar da, eta sukaldari laguntzailea jardunaldi osorako. tr 943 76 48 63 (16:00etatik aurrera. Joseba edo Juana)

• Etxeko lanak egin, eta goizeko 7:00etatik aurrera 3 eta 6 urteko bi ume zaintzeko emakumea behar da. Tr 943 74 39 43 (22:30etatik aurrera)

## Etxebizitzak

Apartamentua alokatzen da Benidormen abuztuan ez ezik. Levanteko hondartzan, lehen ilaran. 1T 943 74 20 31/943 74 38 27

Pisua salgai Kalamua Kalean. 98,90 m<sup>2</sup>. 27 659 42 33 48

• Logela alokatzen da. w 943 74 18 81

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarran. a 945 27 87 09

\* Pisua hartuko nuke alokairuan. 1:r 943 03 03 21 (Mertxe)

• Apartamentua alokatzen da Torrevisjan. Igerileku komunitarioa dauka. v 943 74 23 63

## Partikularrak

+ Uztailean goizez partikularrak emateko prest. Asignatura guztiak. tr 616 26 20 13 (Miren)

Unibertsitarioa uztailean klase partikularrak emateko prest. 9-11 urte bitarteko umeei. v 943 74 22 00 (Armaia)

Klase partikularrak emango nituzke uztailean. 12 urtera arteko umeei. v 943 74 30 61 (Ana)

• Ingeleseko klase partikularrak ematen dira. a 649 22 11 54

Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleari matematika klaseak emateko pertsona behar da. Uztailean, goizez. v 626 23 75 70

## Garajeak

• Garaje marraduna salgai Pista Belztean. v 943 74 16 88

+ Garajea alokatzen da Leku Ederren. 3. solairuan, oso sarrera onarekin. Tr 660 79 53 01

## Bestelakoak

• Lore lehorrekin ezkontzetarako oroigarriak egiten ditut. v 667 34 85 03

• Urrezko belarritakoa galdu nuen Trinitate jaietan. Ti+ 943 74 05 31

• Kalamua eta elgoibar artean mobil horia galdu nuen ekainaren 28an. Tr 943 74 08 30

• Ekainak 12an aterkia ahaztu nuen Madalako parkeko bankuan. Aurkitu duenak mesedez, Udailtzaingora eraman dezala. v 615 79 71 84

## Salerosketak

Maxi-cossi bat salizten dut. Egoera onean. Sako guztia oparitzen dut. tr 943 74 04 46 (21:00etatik aurrera)

Citroen AX salgai. SS-Z. 300 euro. tr 649 01 81 99 (Pedro)

+ Ford Orion 1800, 16v salgai. 41.000 km, 11 urte. v 943 74 09 44

• Renault Clio 1.2, salgai. 7,5 urte, 115.000 km. 2.100 euro. 653 01 10 43

• Opel Vectra DTI, 2.2 sport salgai. Txuria, 5 ate. 2002. urtekoa. Kapot elektrikoa, klimatizadorea, ordenadorea... urte beteko opel garantia. tr 616 26 62 12

Audi A4 salgai. 97koa. TDI, 110 cv. Zilar kolorekoa. Beti garajejan. tr 616 26 62 12

• Karabana berria salgai. Moncayo markakoa. v- 943 74 30 98

## Rurtengo San Bartolome jaixetan

# ELGOIBARKO IZFIIRRIren RIDEKO THOSN

izango dugu Madalako parkean



*Gonbidatuta zaudete danok!*

**Ondo pasau oporretan eta disfrutatu jaixetan!**

*Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea*



## Agurrak



• Zor'onak Mikel, hilaren 10ean 5 urte beteko dituzulako. Familiako-en eta bereziki, lehengusu Borja eta Inazioaren partez.



• Zorionak **Naia**, igandean 6 urte beteko dituzulako. Familiako-en eta bereziki, Jonen eta ainhoaren partez.



• Zorionak **preziosa**, hilaren 17an 7 urte beteko dituzulako. Familiako-en, eta bereziki, anaia Enekoren partez.



• Zorionak gure etxeko erregina den **Jurdanari**, gaur bere lehenengo urtea bete duelako. Aitaxo, amatxo, aiton-amona eta birramonaren partez.



• Zorionak **Helene Alberdi Artolari** bere 4. urtebetetzean. Familiako guztien partez.



• Zor'onak **Iñigo**, atzo 4 urte bete zenituelako. Etxeko-en, Maialen eta lehengusinen partez. Aupa Athletic!



• Zorionak Jonathan, gaur 11 urte bete dituzulako. Gurasoen eta arreba Jessicaren partez.



• Zo ionak **Maite** Viñeri, abuztuaren 6an, 6 urte beteko dituelako. Etxeko-en eta bereziki, Mirenen partez.



Zorionak **Itoitz**, uztailaren 9an 8 urte bete zenituelako. Familiako-en, eta bereziki, zure anaia Urkoren partez.



Zorionak **Ibon Belaustegiri** bere 8. urtebetetzean. Familiako guztien eta bereziki, anaia Jonen partez.



• Zorionak **Asier Rodriguez Blanco**, uztailaren 9an 6 urte beteko dituzulako. Anaia Marcos, guraso, osaba-izeba eta aiton-amonen partez.



• Zorionak **Haritz Arribillagari**, abuztuaren 1 ean 12 urte beteko dituelako. Gurasoen partez, txapeldun!



• Zorionak **amama Angeles**, abuztuaren 1 ean urteak beteko dituzulako. Etxeko-en, eta batez ere, Miren eta Maiteren partez.



• Zorionak **Mikel** datorren hilaren 16an 6 urte beteko dituzulako. Guraso eta aiton-amonen partez.



• Zorionak **Andrea**, gaur ostirala 7 urte bete dituzulako. Guraso, amama eta aitxita, Juan eta Lurdes eta bereziki, ahizpa Mariaren partez.



• Zorionak **bikote!** Konturatu orduko urtebete ein doze. Laster zuen atzetik korrika ibili biharko gera! Muxu bat Ikastolako laguntxoaren partez.



• Zorionak **Aitor aita-semeei**, hilaren 24 eta 27an urteak beteko dituztelako. Ziur txapeldunen moduan ospatuko duzuela! Muxu handi bana Asier eta amaren partez.



• Zorionak **Leyre**, bihar, hilak 12, 6 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta anaia Javierren partez.



• Zorionak **Kristian eta Oihana**, hilaren 12an ezkonduko zaretelako. Zorionak eta ondo pasa! Bi familien partez.



• Zorionak **aitxita eta amamari** iloben partez, zuen urrezko ezteietan. Ondo pasatu eguna!





## TXANGOAK

### Jubilatuen Biltokitik Nafarroara

Jubilatuen Biltokiak Nafarroan dagoen Milagro herrira txangoa antolatu du. Uztailaren 23an, eguaztenean, izango da irteera Plaza Handitik goizeko 08:00etan. Bertan "El Montecillo"ko hazienda bisitatuko dute. Herriko monumentuak ikusi, bertako jubilatuen biltokia ezagutu eta zezentxo enbolatuak ikusteko aukera izango dute. Prezioa, bazkaria bame, 22 eurokoa da. Izena emateko Jubilatuen Biltokitik pasa.

## HITZALDIAK

### Preso eta iheslariak

Uztailaren 15ean, martitzenean, Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak antolatutako hitzaldia izango da Kultur Etxean (17:30). Bertan, preso eta iheslariak jasan behar duten egoeraren berri emango du Joseba Agudo abokatuak. Iheslari hauetako bat, Josu Lariz elgoibartarra, gaur egun Buenos Airesko kartzelan dago estradizio eskaera bati aurre egin beharrean. "Uruguay bi aldiz estradizioa eman ez ziotenez, Estatu Espainolak ilegalki hegazkinean jarri eta Argentinara eramatea lortu zuen, han estradizio ematea errazagoa izango delakoan". Larizen neska lagun mexikarra ere bertan izango da, haren egoeraren berri emateko.

## WASTETKEAK

### IMHko Txandakako Ingeniaritza

Datorren uztailaren 24an IMHko Txandakako Ingeniaritzako probetara apuntatzeko epea amaitzen da. Kontutan izan behar da ingeniariak honek 3 urteetako iraupena duela, goizez lan egin eta arratsaldez ikasi egiten dela, enpresarekin adostutako proiektuaren arabera eta enpresak ikaslea lan egun erdira kontratatzen duela bere langile bezala. Aipagarria da tituludun %90ak enpresan jarraitzen duela lanean eta %40ak zuzendaritza ardurekin gainera. Informazio gehiago behar izanez gero, deitu 943 74 82 84 telefonora. Informazio gehiago [www.imh.es](http://www.imh.es) orrian aurki daiteke edo [imh@imh.es](mailto:imh@imh.es) helbidera idatziz.

## ORDUTEGI ALDAKETAK

### Errotatxoren ordutegi berria

Errotatxo, Drogomenpekotasunen Prebentziorako Elkartek udako ordutegi berria izango du uztailaren 9:00etatik 12:00etara izango da ordutegi berria. Artetxe kalea 28, beheka elkartearen helbidea. Telefonoa, berriz, 943 74 24 47. E-posta: [ERROTATX0@telefonica.net](mailto:ERROTATX0@telefonica.net) abuztuaren itxita egongo da eta irailean ohiko ordutegia izango du: asteazkenetan 17:00etatik 20:00etara.

# zine

## KARTELDEGIA

### ELGOIBAR, Herriko Antzokian

#### PLAZA HANDIAN

"Hable con ella"

11, barixakua: 22:30

"Taxi Para 3"

12, zapatua: 22:30

"El oro de Mosch"

18, barixakua: 22:30

"El caza cocodrilos"

19, zapatua: 22:30

"Harry Potter H"

25, barixakua: 22:30

"Sucedió en Manhattan"

26, zapatua: 22:30

### EIBAR

#### Unzaga

"Los Angeles de Charlie 2"

11, barixakua: 19:30-22:15

12, zapatua: 17:00-19:30-22:30

13, domekia: 17:00-19:30-22:30

14, astelehena: 19:30-22:15

15, martitzena: 19:30-22:15

16, eguazkena: 19:30-22:15

"En un lugar de Africa"

11, barixakua: 19:30-22:15

12, zapatua: 17:00-19:30-22:15

13, domekia: 17:00-19:30-22:15

14, astelehena: 19:30-22:15

15, martitzena: 19:30

16, eguazkena: 19:30

BARRENez ez clu gerta litezkeen emanaldien  
:111kelen



## "Hable con ella"

Zuzendaria: Pedro Almodóvar.

Antzezleak: Leonor Watling, Javier Camara, Rosario Flores.

Bi gizonen arteko adiskidetasuna, bakardadea eta pasioak sortutako zauriek sendatzeko behar izaten duten denbora luzeaz mintzo da han eta hemen sariak jasotzea besterik egin ez duen Almodóvarren azken filma. Bikoteen arteko inkomunikazioa eta isiltasuna ere aztertu ditu Almodóvarrek. Eta bakardadeari, gaixotasunari, heriotzari eta zoramenari ihes egiteko modurik egokiena hitza, komunikazioa, dela biderik onena aldarrikatzen du.

# N

# rn




ste honetako erretratu zaharra Patxi Juaristik laga digu. 1920. urte inguruko erretratua dugu hau, eta Lerungo futbol zelai zaharrean aterata dago. C.D Elgoibarko beteranoek lagunarteko partidu bat jokatu zuteneko eguna da. Erretratuan agertzen diren guztiak hilda daude, baina gogora ditzagun zein diren talde honetan azaltzen zaizkigunak: Ezkerretik eskumara: Uncilla, Astigarraga "Porru", Eloy Iriondo "Sanson", Ciriaco Garate, Alberto Ecenarro, Casimiro Zabala, Nicolas San Martin "Alday", Demetrio Vallejo, Rufino Unzueta, Ignacio Arrillaga, Albisu eta Tiburcio Beristain.




## ESKERTZA

*2003ko uztailaren 6an, 25 urte zituela hil zen  
JON ANDONEGI AMESTIren sendiak,  
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



*Adio laguna  
aski ezaguna  
Inoiz ez gara damu izango  
laguna izana.*




—  
JON ANDONEGI AMESTI

Ikastolako lagunak



# le MILAR BIRE

Ubitarte, 11 - 943 74 14 87



### SONY TV Plano KV29 LS30 29"

29 hazbeteko pantaila laua FD trinitron. Life Style diseinua. Estereo Nicam Dual. Potentzi musikala: 2 x 7w RMS. 10 orriko memoriadun teletextoa. 2 eurokonektore. Smart, Link. Urrutiko managailua.

**499 €** 83.026 pta



### TVC 14"

2 urteko bermea. 100 OSD. Konektore aurikularra. Eurokonektorea. Modo Hotel Slep timer.

**120 €** 19.966 pta



### COMBI IGNIS CBB37

352 litrorako edukiera. Neurriak: 1.870 x 600 x 600mm, lp:)tz-kaskorrentzatko bandeja. Ateak ertz biribilduekin. Saillkapen energetikoa C.

**360 €** 59.899 pta



### SHINCO DVD 8100

DVD irakurgailua, SVCD, VCD, CD-R/RW, MP3 eta Kodak Picture CD (JPEG). Slim diseinua, Dolby Digital irteera.

**84 €** 13.976 pta

911,11LAR

caai/

00010001  
01411 59 =  
C114.05 PVNIF 59 (414/11)

Zure erosketak  
finantziazten ditugu

## runduho prezinal

# Pasa zaitez hemendik udako katalogo baten bila!

# LGOIBARKO NaI3ARTEKO 1X111. FritKLORE JAIALDIA

EUSKADI - KENYA - TXETXENIA



UZTAILAK 24  
OSTEGUNA  
22:30ean




Kultura saila



Musika eta Dantza  
Udal Fundazioa



Aldundia



Elgoibarko  
Kirol Patronatua



Txankakua



Haritz  
Euskal Dantzari Talde

OLAIZAGA KIROLDEGIAN